

artikulu nabarmenak
artículos destacados

apirila/abril



European Journal
of
Education and Psychology

ISSN: 1888-8992 · e-ISSN: 1889-2209 · DOI: AL 959-2006

ASPIAZU, Lorea, Igor ESNAOLA y Marta SARASA. [Capacidad predictiva del apoyo social en la inteligencia emocional de los adolescentes](#). *European Journal of Education and Psychology*. Almería: CENFINIT, junio 2015, **8**(1) 23-29 . ISSN 1888-8992.

Ea nerabezaroan zer harreman dagoen ingurukoengandik jasotzen dugun laguntasunaren (familia, lagunak, irakasleak) eta adimen emozionalaren artean (arreta emozionala, sentimendu argiak eta emozioak sendatzea); horixe azterlanaren helburua. Korrelazio-analisek erakusten dute lotura esanguratsuak daudela aztertu diren aldagaien artean, bai lagin maskulinoan bai femeninoan. Maskulinoan, lagunen laguntasuna da arreta emozionala aurreikusten duena; eta sentimendu argiak edukitzeak eta familiaren laguntasunak dakarte, berriz, emozioen erregulazioa. Femeninoan, ordea, parekoen laguntasunak aurreikusten du ondoen arreta emozionala; eta familiaren laguntasunak, berriz, emozioen argitasuna eta erregulazioa.

GARCÍA JIMÉNEZ, Antonio, Beatriz CATALINA-GARCÍA y Carlos OLIVA-MARAÑÓN. [Estudio sobre la frecuencia de búsqueda y consulta de noticias por parte de los jóvenes](#). *Documentación de Ciencias de la Información*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid, 2016 **39**, 283-298. ISSN 1988-2890.

Unibertsitateko gazteak sarri-sarri ibiltzen dira berriak eskuratzen eta kontsultatzen, lanerako behar dutelako edo jakinaren gainean egon nahi dutelako. Informatzen ez direnak ingurukoengandik jasotzen duten informazioarekin konformatzen dira. Ohiko medioen artean, telebista da lehenik nahiago dutena, eta irratia azkena. Edonola ere, ia gazte guztiek berreskuratzen dute informazioa inguru digitaletik, sare sozialetatik batez ere, Facebook eta Twitter. Gazteak bietatik ibiltzen dira informazio bila: ohiko medioetatik eta on-linekoetatik. Bestalde, unibertsitateko gazteen artean, informazio gehien kontsultatzen dutenak ez dira gehien zabaltzen dutenak.

RODRÍGUEZ GARCÍA, Lorena y José Rafael MAGDALENA BENEDITO. [Perspectiva de los jóvenes sobre seguridad y privacidad en las redes sociales](#). *Icono 14. Revista científica de comunicación y tecnologías emergentes*. Madrid: Icono14, 2016, **14**(1), 24-249. ISSN 1697-8293 .

Sare sozialak darabiltzaten gazteek (Facebook, Twitter, YouTube, WhatsApp, Instagram eta Ask.fm) segurtasun gutxiko pasahitzak erabiltzen dituzte, eta uste dute segurtasun-neurri handiagoak behar direla sare horietarako erregistroan eta bajaran. Ez dituzte pribatutasun-politikak ezagutzen, eta ez dakite arlo horretako aukerak zuzen konfiguratzeko. Konfiantzazko jendea eta jende ezagutu berri-berria sartzen dute beren zerrendetan. Irudiak eta bideoak kontaktu guztiekin partekatzen dituzte, batez ere WhatsApp, Twitter eta Facebooken, inor bereizi gabe eta mugarik gabe, nahiz eta komentarioekin baino tentu handiagoz ibili. Orokorrean, uste dute sare sozialak ez direla seguruak, baina tresna erabilgarria eta garrantzitsua direla.

